

# Agenda 2030

JARDUNALDIA GJH  
JORNADA ODS

# Iraunkortasunez deskarbonizatzeko helburua

## Objetivo Descarbonizar Sosteniblemente



**EDE**-tik  
DIÁLOGOS &  
APRENDIZAJES

**Azaroak 14** Noviembre

18:00-20:00

Bilbao Berrikuntza Factory  
Uribitarte pasealekua, 3. Bilbo





## **JARDUNALDIA: GJH.: Iraunkortasunez deskarbonizatzeko helburua**

### **Agenda 2030, GJH, Deskarbonizazioa hurbiltzen... Itxaron ezin duen prozesu bat, Erre-Akziorako gonbidapena**

2015eko irailaren 25ean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak aho batez onartu zuen **Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda**. Ekintza-plan unibertsala, integrala eta eraldatzailea da, eta giza garapena sustatzera bideratuta dago, izaera jasangarriarekin, gizartearen, ekonomiaren, kulturaren eta ingurumenaren esparruan.

2030 Agendak dimentsio bikoitza du. Alde batetik, iraunkortasunarekiko eta elkartasunarekiko barne-konpromisoa da, eta, bestetik, globalizazioarekiko kanpo-konpromisoa. Eta aukera bat da jasangarritasun ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenarekiko konpromisoetan oinarritutako kontratu sozialaren kultura sustatzeko.

Zalantzarik gabe, klima-aldaketa erronka nagusietako bat da, eta, aldi berean, mundu mailan oso konplexua eta zeharkakoa.

Ildo horretan, eta klima-ondorio horiek minimizatzeko eta deuseztatzeko funtsezko eta beharrezko estrategia gisa, **DESKARBONIZAZIOA** dago. Itxuraz teknikoa edo zientifikoa den izendapen horren atzean, esanahi zehatz eta hurbila dago planetarentzat eta haren mende gauden pertsona guztientzat. Eta gure ustez, deskarbonizazioak egin beharreko benetako ekintzen ondorio izan behar du.

**Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Trantsizioko eta 2030 Agendako Idazkaritza Nagusiak** lagundutako jardunaldi honen helburua Deskarbonizazio terminoaren garrantzi estrategikoa agerian uztea da, **GJHei bideragarritasuna emateari dagokionez**. Jardunaldiaren bidez, bi ikuspuntutatik landuko dugu:

- Deskarbonizazioa, planetako bizitzari eta orekari eusten dion kontzeptu gisa, eta eragile sozial, politiko eta herritar guztiei gure ekoizpen- eta kontsumo-eredua zalantzan jartzen laguntzen digun kontzeptu gisa.
- "Deskarbonizatzaileak": prozesu honetan zuzenean eragiten duten ideiak, kolektiboak, pertsonak, erakundeak eta ekintzak, klima-aldaketaren aurkako benetako borroka-ildoak dakartenak.

## PROGRAMA

---

**18:00-18:15** HARRERA ETA SARRERA - AGENDA 2030

---

**18:15-19:00** DESKARBONIZAZIOARI BURUZKO ELKARRIZKETA:  
KONTZEPTUA ETA ONDORIOAK

- Jaime Zufia - **AZTIko** Prozesu Eraginkor eta Jasangarrien Arloko koordinatzailea. Itsas eta Elikadura Zientzia eta Teknologia
  - Olatz Unamunzaga - **NEIKER** Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundeko Natura Baliabideen Kontserbazio Saileko arduraduna.
- 

**19:00-20:00** TOKIKO ESPERIENTZIAK: "DESKARBONIZAZIORAKO "  
EKIMENAK

- Olaia Saenz, **Sare Berdeak** - Global Action Plan Bizkaiaren koordinatzailea.
- Jon Hidalgo - **Lurguia Fundazioko** kidea.
- Pablo Castells - BEcoop proiektuaren kudeatzailea - **Goienerr** Energia berriztagarria sortzeko eta kontsumitzeko kooperatiba.

**Izena eman**

Info: [izan@edefundazioa.org](mailto:izan@edefundazioa.org)